

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko uztailaren 21eko bilera arruntean (3/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

4. Gaia: Desagertu behar den sukaldariaren lanpostua eta plaza amortizatzea LH2 sukaldariaren lanpostua eta plaza sortzeko Leioa Laguntza Zentroan.

"Lehenengoa.- 2210122 organikoan -Leioa Laguntza Zentroko zerbitzu orokorrak- desagertu behar den 2000705-0003 plaza -Lehen mailako sukaldaria- eta 3072-0010 lanpostua -Sukaldaria- amortizatzea.

Bigarrena.- 2210122 organikoan -Leioa Laguntza Zentroko zerbitzu orokorrak-, 2000701-0026 plaza -Sukaldaria, LH2- eta 3073-0024 lanpostua -Sukaldaria, LH2- sortzea.

Hirugarrena.- Aipatutako lanpostuak betetzeko baldintza eta betekizunak dagozkien eranskinean deskribatzen dira. Amortizazioek eta sorkuntzek Gobernu Batzordeak onesten dituenetik izango dituzte ondoreak, gerora Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen kalterik gabe.

Laugarrena.- Bizkaiko Lurralde Historikoko 2025eko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauaren 12. artikuluan, I.kapituluko gastuen gehikuntza mugatzeari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorriz, egiaztapen-txostena erantsi da.

Bosgarrena.- Helaraztea egiaztapen txostena Leioa Laguntza Zentroko Zuzendaritzari, Laguntza Zerbitzuen zuzendariari, Hautaketa eta Hornikuntza Arloko buruari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuaren buruari.

Seigarrena.- Argitaratzea erabaki honen xedapen-zatia nahiz lanpostuen zerrenda aldatzeko eranskina Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai eta erakundearen iragarki-taulan eta intranetean ere eta bidezko jakinarazpena helaraztea erakundearen ordezkariak duten zentral sindikalei. Bete bedi."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-07-30
GUFU-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

